

.....

# GUERE IKURRA

.....

Euskal antzerkia.  
Iru ekitalditan.  
Itz neurtuetan.

G U R E    I K U R R A

=====

Euskal antzerkia.

Iru ekitalditan.

Itz neurtuetan.

ANTZEZLARIAK

(Agertu ala)

LORE.- Emakume egiña. GERNIKA'ren ezaugarria.

LIÑE } Sasoi oneko neskatillak.  
LUKE }

ALDUN.- Bizkai'ko Aldun Nausi.

TOXU.- Txistularia.

APAR } Arrantzale mardulak.  
BITS }

PERU } -Olagizonak. Baserri aldetakoak.  
BASO }

KORREXIDOREA.

ZAIN.- Korrexidorearen zain-laguna. Itzik barik.

ANDI } Bizkai'ko zaldunak.  
JAUN }

BIZKAI.- Bizkaia irudituko daben emakume egiña.

TXO.- Itxastar mutiltxoa.

IPARRAGIRRE..

OLERKARI.

Emakume jokolariak.

TXERU } -ezkontide gazteak.  
TOBA }

OLA-GIZON ETA BASERRITARRAK.

ARRANTZALEAK

PELOTARIAK

GUDARIAK

DANTZARIAK.

## EKINTZAK ETA GIROA.

Lenengo ekintzan: XVIII gizaldian.

Bigarren ekintzan: Lenengo zatia, XIX garren erdian.  
Bigarren zafian, 1.936 urtean.

Irugarren ekintzan: Gure egunetan.

Egilleak: Batzuk, erri ordezkari edo ezaugarri diranez, iru ekintzetan egin leikie lana, giroko jantzi eta aldakuntzak kontuan eukita.

IRUDITEGIAK.

Lenengo ekintzan: Gernika'ko Andra Mari parroki ingurua. Arbola dagon tokirako bidean.  
Etxe baten atadi zabal ederra.  
Aldaketan, Arbolapea.

Bigarren ekintzan: Batzar etxe inguruan.  
Egalean, Arbola.  
Aurrean, burdin sare zabala.  
Albo baten klaratarren kombentua.

Irugarren ekintzan:  
Lenengotan, ARBOLA, atzean, aurrez-aurre, burdin sarea aurrenengo daukala.  
Geroago, dantza ondoren, erabili leiken antzez-tokietan, Arbola aurreratuko da, erdi aldera.

## I EKINTZA

=====

## I

LORE, LIÑE eta LUKE.

(Goruetan eta kontu kontari, alai, umoretsu, etxe inguruan.  
Alkarri zirika sarri jardunarren, adiskide on igarten dira.)

LORE.- Garbi dator eguna.

LIÑE.- Laiñorik ikusten ez.

LORE.- Leike, gaur, nai doguna.

-LUKE.- Zetaz edo zerenez?

LIÑE.- Or esan bearrik ez.

Gizon eta mutillez.

LORE.- Beti mutil ametsez.

LIÑE.- Pozez edo naigabez.

LUKE.- Kortezubikoak baltzitu zinduzan zimurka.

LIÑE.- Nik egin neutsan areri sekulatako uka.

LUKE.- Axangiztar bat ibili zendun jaiero zirrika.

LIÑE.- Itandu nok egiña daben betondoko tortika.

LORE.- Izanak izan baiña esanez kontenta adi.

LIÑE.- Nireak ondo ta zorrotz dauke nire opari.

LORE.- Edozelan be beti zaitugu morrosko gosez.

LIÑE.- Nik argi diñodana ez ete besteak gabez?

LORE.- Arin ez ba zabiltz laster dozu okotsa ulez.

LUKE.- Ene txikiña, zuk ba dozu zerbait baltzunez.

LIÑE.- Ara! Nor orain burlez?

LUKE.- Nor? Esan bearrik ez,  
emen Luke, gorule.

LORE.- Zu zenbaten ~~gogate~~ ikusle?

LIÑE.- Ai ene! Asko ikusi,  
baiña ikutu gitxi.

LUKE.-Ez zaite ain itxusi!

Parrokoai ikasi:

"Neskak,ez zaiteze  
ikututeko pitxi".

LIÑE.--(Destaintsu) Ta berak barragana etxean.

LORE.--Zatar! Ori ez da erabilten aidean.

LIÑE.--Nik bai,gure Jainkoaren izen onean  
eta zu lako ipokriten salatzean.

LORE.--(Irritsu) Zegaitik ez santu guztien amenean?

LIÑE.--Or be nitzat errazoa azken batean.

LUKE.--Setatsu izaten jarrai danok katean.

LORE.--A zelakoak giñateken gu Batzarrean.

LIÑE.--Gizonen pareko.

LUKE.--Ori ikusteko.

LIÑE.--Baietz esateko?

LUKE.--Ta berba eiteko?

LORE.--Ez da ainbesteko.

LIÑE.--Batzuk esana.

LORE.--Besteak kana.

LIÑE.--Batzuek plana.

LUKE.--Besteak lana.

LIÑE.--Batzuek orru.

LUKE.--Ta besteak mu.

LIÑE.--Edo ao bero.

LUKE.--Leikena gero.

LORE.--Gure zarrena

ikas lenena:

Aoa beroa ta boltsea otz.

LUKE.--Aoa ~~erabil~~ erabil ta sabela poz.

LORE.--Baiña ao txikiak txistu txikia.

LIÑE.--Lore,beti dozu gertu lotsakia.

LUKE.--Gureak euko dau gaur be aitzakia.

LORE.--Aguren aotan sarri zirikia

LUKE.--Ziri ordez amaena eztenkia.

## II

## LENGUAK ETA ALDUN

ALDUN.- (Urteetan egiña. Makilla ta guzti dabil. Kiñulari ta adar jotzaille.)

(Alai agertuaz)

Gertu egizuez neskak  
ostatua ta etxeak.

LUKE .- Oi! Onek dakarkuz kezak!

ALDUN.- Garbi arin kale ertzak.

LIÑE .- Ta zaldien pekorotzak?

LUKE .- Ta aldun askoren ortzak?

ALDUN.- Apaindu zaitetze, apaindu.

LORE .- Apaindu eta ondo zaindu.

LIÑE .- Eta ake<sup>txoak</sup>~~ak~~ liraindu?

ALDUN.- Noiztik ete gara akerrak aldunak?

LUKE .- Denboren urratsei eskatu belaunak.

LORE.- Batzuk su-zirizko zaldunak.

LIÑE .- Obeto esanda, zezenak.

ALDUN.- (Garratz) Bai, eta basoetako kirtenak.

Ez? Ez al da ala zuen sinistea?

Ezetz? Barriro esango ben benez?

LORE .- Aldun, ez aizetu ainbete putsez.

LIÑE.- Ez zabiltz ba erriaren mesedez?

ALDUN.- Gernika beti zirika.

LORE .- Gernika beti arrika.

LIÑE .- Arrika edo tirrika.

ALDUN.- Ta batzarrera deika.

LUKE .- Edo olgetan irrika.

ALDUN.- Ortaz egia da "Gernika, zirika ta txirrika?"

LORE .- Bizkaitarrak beti guri k~~ir~~rika.

ALDUN.- Ta zuek arei lepo igurtzika.

Ala len eta gero be bearko.

LORE .- Esker oneko~~o~~ garealako.

ALDUN.-Bestela ez dago urrun Fika,  
edo ezagunago Muxika  
aukeran biak batzar tokika.  
Zegaitik beti gure Gernika?

LORE .-Eta Bizkaia eten zatika?

ALDUN.- (Zirikalari)

Edo ta auzoko Gorozika,  
nai itxasertzeko Ibarrika...

LIÑE .-Aldunak ez dauke orretarako bizarrik.

LORE.-Berotu arte ez da ezagutzen giarrik.

ALDUN.-Gernika onetan ez al dago mutilzarrik?

LORE .-Zoaz,zoaz,ez dogu zurelako bearrik.

ALDUN.-Ba dakizue,ez? Gaur asiko da batzarrak

LORE .-Ibiliko da emen dukata eta zidarra.

LIÑE .-Eta tabernetan sagarduan orde z pattarra.

LUKE .-Laster ots dagike norbaitek:Gora Lagi zarra!

ALDUN.-Gureari ez da zeri sartu gura giarra?

LIÑE .-Ori baiño zentzunago da batzuen kaskarra.

LORE .-Egungo batzarrerako gai asko?

LIÑE .-Maietan bai oneik arrain ta ollasko.

LUKE .-Bigili egunak oneintzat pasko.

ALDUN.-Eleizak ba al dau bularik ortazko?

LIÑE .-Etorko ete da "Ereño" zakarra?

LUKE .-Amabi umeren aita gangarra?

LORE .-Amaika neska ta bakarra arra.

LIÑE .-Arein amak egin bear negarra.

LUKE .-Zetarako da mendian senarra?

(ALDUN joaten asia zan,baiña bira egin dauala igarrita)

Zetan dator berau barrero ona?

ALDUN.-Esan nairik esateko neukona.

Ugari da menditarren odola.

LORE .-Ori iñok ezin uka iñola.

LUKE .-Lumo'tik datorkigu azi ona.

LORE .-Aldi baten ba ei euken koskona.



ALDUN.-Esaera zarra artu ta konpon:

"Gernikar andra ta lumotar gizon  
euskal arrazak eukiko dau zozkon."

Artu ta uler ta besteak din-don.

LUKE .-Egi dalako dabil bilin-bolon,  
bestela joango zan tolon-tolon.

ALDUN.-Din bako don ba dakizu zer dan gaztelarrentzat?  
(Garratz) Alaba liraiñak eskintzea erregeentzat.

LORE .-Jaurti dozu zoli zure ziria.

LIÑE .-Ori zan barruan zendun guztia?

ALDUN.-Nesken aurrean zer nai esatia?

LORE .-Etorriko al da gure txandia.

ALDUN.-Ai zuek ataratako legia!

LORE .-Emoiguzue, bai, eskubidia,  
eta ondorenian egin berbia.

LUKE .-Ori Lore, ori da egia.  
Andrak be bear dogu guria.

ALDUN.-Belarria asi jat gartuten,  
arbolazpira nua oztuten.

LORE .-Entzuizu, arren.

ALDUN.-Ainbat lasterren.

LORE .-Zein etorriko ete da Lekeitio aldetik?

LIÑE .-Jende arroskoa bizi da alde aretatik.

ALDUN.- Orrelakorik ez dautsue entzuten bertatik.

LORE .-Eta zein Gipuzko mugako Ondarru ertzetik?

LUKE .-Arrain& usaiña ta atsa zabalduko dabe emendik.

ALDUN.-Ats gogorrago etorri lei beste nunbaitetik.

LIÑE .-Bardin ekarriko dabe Bermio egaletik.

LORE .-Ariñago zabalduko da bai mendebaletik.

ALDUN.-Alako baten be joan nadin zuen artetik.

Txoria ba nitz ezin iges lakio onetik.

Beste bat arte esan gura dautsuet aurretik.

LORE .-Bardin guk be ta eskerrik beroenak guretik.

(ALDUN JOATEN ASI TA BIURTZEN DA)

LIÑE .- Joan eta joateko barriro bere?

ALDUN.-Aztuta laga dautsuet eta esateke:

Korrexidorea dator gu ezagutzeke.

LORE .-Oraindik be gure loturak azkatzeko?

LIÑE .-Ez dogu luza bear kateak kentzeko.

LUKE .-Egunik ez bear dana ken ta eteteko.

ALDUN.-Argal ei da eta mirrin,  
txatxar, itxusi ta ziztrin.

LORE .-Garbi esan eta gordin:  
erbestetarren txipristin.  
Ori da nire irakin.  
Eizue gizonak zirkin  
ta erria jaso ergin!

ALDUN.- (Kiñuka eta zirikalari)  
Ixil zaite, akelarretako abots!

LORE .-Noiz egin dot nik sorgiñen artean ots?

ALDUN.-Guzurra dirudi, ulez beteta eukita okotz.

LORE .-Zoaz, zure aurka be ez nitzakelako nekez motz.

ALDUN.-Entzun, mesédez.

LORE .-Ala bearrez.

LUKE .-Ta danon onez.

ALDUN.-Burukomiñik ez emon oraingoz,  
gizonak berotuko dabe geroz,  
ez uste gabiltzanik gure gogoz.  
Ba nua. Ez barrerik nire lepoz.

LORE .-Zitaldu zara, aldun zaranekoz.

(ALDUN joaten da)

### III

LORE, LIÑE eta LUKE.

LIÑE.- (Gangarki, goru matasari putska.)

Beata ala fraile?

LORE.-Errekaize ekarle?

LUKE.- Galerren iragarle?

LIÑE.- Gu neskazar eta mutxurdin  
zegaitik ez fraile burumin?

LIÑE.- (Kantari) ("Iruten ari nuzu"ren doiñua erabili)lei.)

Argal eta mirriña  
 Korrexidorea,  
 nun ete billatuko,  
 nun ete billatuko  
 bere aukerea?  
 Argal eta mirriña  
 ta ozpiñez betea.

LORE.-Ori da ori etorria.

LUKE.-Etorri ala iturria?

LORE.-Zegaitik ez etorria edo ekarria?

LUKE.-Zurea beintzat eztabaidako egarria.

LORE.-Batzuk ordain bear besten eraman larria.

LUKE.-Eramana nirea?

LIÑE.-Nor da emen belea?

LUKE.-Zer! Zozuak beleari ipur baltz?

LIÑE.-Or ez dago ez salda ez eta gatz.

LORE.-Lore, zeinek ez dauka guk aña ats?

Edo gure matsak noiz dira garratz?

LORE.-Neskak, tolaretan be ainbeste sats!

LIÑE.-Birgin gareala ta akatsik akats?

LORE.-Aldun nagusiak ba leki, jakin!

LIÑE.-Areri be guk odolak irakin.

LORE.-Orrela ba gabiltz ez da gauz onik.

LIÑE.-Konturatzen iñor aztu dogunik?

(Barriro kantari)

Jolas gaitezen alai,

gora umorea,

laster datorkigu-ta,

laster datorkigu-ta

Korrexidorea.

Txatxarraren semia da

eta agurea.

LORE.-Gernika ta geiagorako zara Liñe.

LIÑE.-Ondarrutar aldunak esaten dakiñe:

Arpa joten amagana joan,txikiñe.

LUKE.-Bermiarrena be jakin bear zeunkiñe:

Sorgin onetxek dekoz burue ta miñe.

#### IV

LORE,LIÑE,LUKE eta TOXU.

(Tamboliña eskuetan dakarrela agertzen da Toxu.

Patxadaz dator.)

LORE.-Emen Toxu.Gaur be lanian?

TOXU.-Noiz ikusi nazu nagian?

Emendik ez dot joan-etorririk azpaldian.

LIÑE.-Nire begiak begi ba dira bart arratsian.

LORE.- (Zirikalari) Atzo be,Toxu,txurrutian?

TOXU.-Ez da erraz astegunian.

LUKE.- Bai iñoren kontura jaian.

TOXU.-Ta ni bestien mesedian.

Mesedez,ez berbarik banidadian.

LORE.-Ori da berba dotorea miñian.

Ta nora zoaz orain,Toxu?

TOXU.-Agintzen dabenera keixu.

LUKE.-Ez zaite izan popakoxu.

TOXU.-Ez ete nabil beti belu?

LIÑE.-Ala ta ordurako eldu.

LORE.-Adi egon ta ez moteldu.

TOXU.-Ez neuke gurako toteldu.

LORE.-Plazan asi,etxean edo emen,

txistua ez da <sup>6</sup>ta bardin entzuten ?

TOXU.-Ba zatoz betikoari ekiten,

ez daigun ekin oitura barrizten.

LIÑE.-Nok jakingo dau nundik asi zaren?

TOXU.-Danak ez dira lo plaza barrenen.

LORE.-Jo egizu agurra.

TOXU.-Ez naz ortan makurra.

Orretan nabil zurra.

LIÑE.- Edo ta "Urta-urra".

TOXU.- Ene! Sanjunak aurrez  
jausiko da edurra.

LIÑE.-Beste zerbait, laburra.

TOXU.-Niregan nai egurra?

LIÑE.-Ainbesteko bildurra?

LORE.-Batzarra asiko da noz-nai.

LIÑE.-Danontzako izango da jai.

TOXU.-Aukerakorik espero bai?

LUKE.-Ortarako gu ez gara gai.

TOXU.-Kezka barik itxaron nasai.

LIÑE.-~~Elle~~ Nasai? Ni-neu emen nago zai.

Toxu, zure zeregiña da ta jo egizu.

LUKE.-Soñu bizi-bizia ataraten ekizu.

LIÑE.-Soiñu barik berbak ez dauke gatzik.

TOXU.- Koipe barik antzarrak be ez gantzik.

LIÑE.-Aupa, gizonak etorko dira laster.

LUKE.-Gorontzak nasaitu ta gorantza guazen.

TOXU.-An ibilko zarie basterrik baster.

LORE.-Gugaz dabillana ez da joango oker.

LIÑE.- (Toxu eskua jaso eta ba duala igarriaz)

Zer da ori? Gurekin nai ez? Iges?

TOXU.-Zuekin dabillanak ordurik ez,  
norbaitzuen onez, niretzat kaltez.

LIÑE.-Jo batzarren doiñua mesedez.

LORE.-Batera joango gara tatarrez.

TOXU.-Dana litzake nire zoritxarrez.

(TOXU eskutaten da)

LUKE.-Euria batuko dogu gangarrez.

LIÑE.-Orbelak or aidean zoramenez.

LORE.- Itxas txoriak uluka egalez.

LIÑE.-Galerren zoroen baten bultzadez.

LUKE.-Zurbilduta iges dau ak, zitalez.

LIÑE.-Bera& be da da norbait atabalez.

## V

LORE, LIÑE eta LUKE. APAR eta BITS

(APAR eta BITS itxastar jantzi eta jatortasunez agertzen dira)

IPAR.- Umore ona Gernika onetan.

BITS.-Ipar baltzetan gu itxas ertzean.

LORE.-Ipar baltza zuen itxasaldian?

Or dabiz ,bai,kaiuak igesean.

LIÑE.-Zelako barriak dozuez itxasotatik?

APAR.-Bada-ezpadakoak datoz Terranobatik.

BITS.-Txalupak utsik datoz inguru areitatik.

LORE.-Miseria jo bearko zuek origaitik.

LIÑE.-Berezko dozue ~~beste~~ arrantzaleak illeta.

BITS.-Baserritarrik ez da joaten itxasoeta.

LIÑE.-Bakoitzak bere biziari egin topeka.

LORE.-Gernikan be ba daukagu zeri jo tronpeta.

LUKE.-Nungo uretan ibili zarie Kanadan?

BITS.-Norena dan iñok ez dakian Terranoban.

LORE.-Ori ez ei dago atzamarren erreskadan.

BITS.-Gerria mintzen da erramuen arrastadan.

APAR.-Boga boga kantari joan giñan poz pozik,

ta arrotzak kanporatu gaitue ortozi.

BITS.-Bizkaiak batzarrean ez ba dauka indarririk,

geiago ez dogu maitatuko Gernikaririk.

LIÑE.-Korrezidorea mirriña dalako

irriz gebiltzan gu.

APAR.-Aukera eukiko zenduelako

ta...neskuts geratu?

BITS.-Itxasoetan urak urdin,

baiña an be aizeak gordin.

APAR.-Ba guaz Aldun nausian billa,

laguntza bear ta ez ozkilla.

LORE.-Aldunaren fama ez da illa,

danak diñoe dala abilla.

BITS.-Andik etorri ezik bale bizarrik

zuen gorontzak ez leuke lokarririk.

APAR.-Gerria,estutu barik,obe tente.

LORE.-Zer diñozu zuk inuzente potente?

LIÑE.-Zirika?

APAR.-Bai, baiña ez zirrika.

LORE.-Kaiuak lez kirika.

BITS.-Mutillak lez kurika.

LIÑE.-Asi txitxipurdika.

APAR.-Danak olako ba dira  
gora ta aupa Gernika!

LORE.-Umorea beintzat parra-parra.

BITS.-Gernikan be Arbola ta adarra.

LIÑE.-Korrexidore mirriña dalako  
irrika gebiltzan gu.

LUKE.-Berak egin lei, gerri zabaleko  
ikusten ba gaitu.

LORE.-Entzun, entzun mariñel,  
itaun bat zuri goibel:

Ba al dira itxasoetan sirenak?

APAR.-Atzetik ibilten dakie baleak.

LORE.-Bai eta mundu guztiko mariñelak.

BITS.-Naiko lan daukagu erabilten batelak.

LIÑE.-Ta laztan-musurik onenak zeifienak?

BITS.-Jakin min luze dauke zure eztenak.

APAR.-~~E~~Ta zuek goiz eta gabaz goruetan  
aspertzen ez sekula-sekulaetan.

LIÑE.-Ementxe gu egunaren orduetan.

Alaz eta niri zabiltz itaunketan?

APAR.-Ez zara zu gorule?

LIÑE.-Gorule ba nitz, gorule,  
margotu espan-betule,  
or nebilke munduz-mundu  
mariñel itxas inguru,  
an nagolakoan emen,  
nun atsegin, an atsedan,  
nun poza lortu  
an egin portu,  
kutunak batzutan,  
maiteak bestetan,

loxintzaz guritzen,  
labanki zuritzen.

BITS.-Ai gorule, noizean bein da ori.

APAR.-Ta askotan barruko kezka gori.

BITS.-Garratza da itxasoa,  
lar bere miñen lausoa.

APAR.-Gordiña Iparraldetik,  
txakurra mendebaletik  
eta ...iges gibeletik  
galerrenaren sargoretik.

LORE.-Gure amak esaten ekiana:  
Illetarik joten ez dakiana  
kanpai dobleak joten ilgo dala,  
eta lurrak iruntsiko dauala.

BITS.-Laga negar ta kezkazko illeta,  
ta emon guri bizi-errezeta.

LORE.-Zer da itxasoetan onena,  
makallau-arrain ala balaina?

APAR.-Gernikan ez dago birtuterik  
makallau ona ainbestekorik.

(Neskak barre ta irri)

LIÑE.-Ai enetxo, ta gure piperrak?

BITS.-Lagungarri ez dira okerrak.

LORE.-Zurea da etorria, mutil.

BITS.-Zure ziriei esker, neskatil.

LORE.-Ba dakizue zer diudizuen? Bits eta Apar!

BITS.-Irudiei laga ta gareana: Itxas ondar.

BITS eta APAR joaten dira.

## VI

LORE, LIÑE, LUKE, PERU eta BASO.

LIÑE.-Benetan ain garratza dalarikorrein bizia  
nundik ataraten dabe ainbesteko grazia?

LUKE.-Itxastarrak berezko dabe gatza,  
eta guk zertarako berakatsa?



(PERU eta BASO datozala ikusiaz)

LORE.-Emen dator Peru ola-gizona,

Moiztik bialtzen zaitue bertora?

PERU.-Au dot etxe-igesteko aukera.

LORE.-Billatu zendun jarleku sakona.

PERU.-Gerri lotuentzako ez ain ona.

BASO.-Bizi da ostatuko alaba zontzona?

LIÑE.-Ez dakizu laster ezkontzeko dagona?

PERU.-Akabo gure zirriketen itxarop<sup>na</sup> ~~na~~ ~~na~~ ~~na~~

BASO.-Soseatuko dau arek oles dautsona.

Etorri da gure aurretik iñor?

LORE.-Nunbaiten ba dira itxastarrak or.

PERU.-Beti lez Bits eta Apar?

LORE.-Malko, illeta eta negar.

BASO.-Gaztetu egin zara Liñe.

LIÑE.-Gaste izan nitzan antxiñe.

LUKE.-Albakarik be ez dautsazu ekarri aurten.

BASO.-Sartu neban baiña usaiñik ez dautso urten.

LIÑE.-Ta zuek, zer? Jan da jateko?

BASO.-Lengo lez, esan da esateko.

PERU.-Gure artean biziten ez da giro.

BASO.-Illeta j<sup>o</sup> bearko dogu guk ~~be~~ gero.

PERU.-Gero, adiskide, otz ez dana bero.

BASO.-Ala gaizala, emen alkartu ezkerro.

LIÑE.-Zuen egoera ain da baltz?

PERU.-Gurea beti auts eta ikatz.

BASO.-Ta gurean orbel ta sarats.

LORE.-Egin danok buruari ats.

PERU.-Billatu daigun ardau napar baltzena.

LIÑE.-Ardaua ei da txakoliñik onena.

LORE.-Ardau baltzak eingo zaitue tontortu.

LUKE.-Jauntxoak gero zuen ordeaz akordu.

BASO.-Gaurdaiño ez naiz sekula moskortu.

-LORE.-Ardauaz baiño obe uraz azkortu.

BASO.-Betiko lez al dago zuen Gernika?

LORE.-Zuentzat dana upel eta barrika.

BASO.-Aurrera goaz gosez arrakalauta.

LORE.-Batzarrean ez sartu gosez aulduta.

(PERU eta BASO joaten dira.)

## VII

LORE, LIÑE eta LUKE.

LORE.-Ikusten eurak?

LIÑE.-Betiko urak.

(Jostari ta irriz)

Entzun, zuk, Luke.

LUKE.-Ala nai neuke.

LIÑE.-Mendian jaio,

mendian asi,

baso usuario

an bertan bizi,

kalera etorri

ta bera nausi.

Zer dala ta zer dala?

LORE.-Ori da itaun zurbilla?

Alkate makilla.

LIÑE.-Ez. Ez dakizu zer?

LUKE.-Zuretzat edozer.

LIÑE.-Besterik ez ezer.

LUKE.-Eta ardau baltzaren egarria?

Ez ete da orren ezaugarria?

LORE.-Ez litzake menditik etorria.

LIÑE.-Ez eta ere berez ekarria.

LIÑE.-Ziur, matsean dauka iturria.

LORE.-Guk daukaguna da jolas guria!

LUKE.-Laga niri orain.

LIÑE.-Esana zure gain.

LUKE.- Itxasoan jaio,

itxasoan asi,

arrañen amorio

itxasoan bizi,

legorrera atara  
ta danak dantzari.

Zer dala ta zer dala?

LORE.-Makallau zarra.

LIÑE.-Bale bizarra.

LUKE.-Zeure zertzeta.

LORE.-Aman kortxeta.

LUKE.-Zer dala ta zer dala?

LIÑE.-Arrain azala.

LUKE.-Zer dala ta zer dala?

Esango dautsuet geiago,  
konturatzeko errezago.

Bedarra da ta ez igarra,  
labana da ta ez labaiña.

LORE.-Giputxan esakun jakiña:  
eldu orreri, alajaiña!

LUKE.-Labana da ta ez labain,  
eta ura ortako gai?

LIÑE.-Zetatik ~~zatatik~~ ikutu~~z~~ orri?

LUKE.-Ez da ain zail~~lata~~ igarri.

### VIII

LORE, LIÑE, LUKE, KORREXIDOREA eta ZAIN.

LUKE.-(~~KORREXIDOREA~~ eta ZAIN datozala konturatu eta bere lagunei,  
irriz.)

Ikusten zein datorren?

Konturatu nor leiken.

LIÑE.- (Burlaz) Bera ain zuzen!

Erren, erren,

korren, korren...

KORRE.- (Asarre agertzen da)

Nun dira emen aldunak,

nun dira gure zaldunak?

Lotsa errege jaunari

ta Korrexidoreari!

LORE.-Agurtzen zaitut, Korrexidore.

Gernika naz ta artu onore.

KORRE.-Nun sartu dira aldunak,

nun eskutatu zaldunak?

Lotsa nire erregeari,

Bizkai'ko bakaldunari.

LORE.-Errege esan dozu, errege?

No!a zatoz Jaun Korrexidore?

Erregeik ez dogu ezaun,

bai gure Bizkaiako Jaun.

Errege lez ba letorke

or litzake onartzeko.

KORRE.-Nor zaitugu zu jakiteko?

LORE.- Gernika naiz, Batzar tokiko.

KORRE.-Ni erregearen ordezk.

LORE.-Batzarrak ezin ezagutuko.

KORRE.-Ez emon erregeari min.

LORE.- Zuk egizu lenago zin.

KORRE.-Berandik jatorkuz ordenak.

LORE.-Indarrik bagako leikenak.

KORRE.-Erregeak dira ordenak.

LORE.-Olakoetan gara gorrenak.

Berbei men egiten dakigu,

ordenak pikota bialdu...

Erritik datoz gure legeak

ba dakie ori erregek.

LUKE.-Zaindu Gernika indarra,

berotu orri kaskarra.

KORRE.-Nun dira emen aldunak,

nun eskutatu zaldunak?

LORE.-Etorriko dira aldunak,

agertuko baita zaldunak.

KORRE.-Batzarreko ordua noiz?

LORE.-Oraindik izan leike goiz.

Luzea da Gernikan eguna,

ortara gertu bear zentzuna.

Baiña gogo onez ikus:  
 Aldunak aurrean dakuz.  
 Dirudianez asko datoz,  
 batzuk aurrez, besteak alboz.

KORRE.-Baldir orreik al dira aldunak?

Itxuraz ez dira jakitunak.

LUKE.-Gure izadiko ikastunak.

LORE.-Zek minduten dautsuz gaur garunak?

## IX

LENGOAK. Eta gero, sartu ala APAR eta BITS, BASO eta PERU,  
 ANDI eta JAUN eta erritar batzuk.

BITS.-Gu gara, bai, aldunak,  
 nortasuna dogunak.

APAR.-Errian ordezkari,  
 oituraen zaindari.

KORRE.-Eta nun beste aldunak?

BASO.- Baita gu be duindunak,  
 olan diardugunak.

PERU.-Bizkai'ko nortasuna  
 goratzen dakigunak.

KORRE.-Nun dira ba zaldunak,  
 erregeen zordunak?

ANDI.- Emen gara zaldunak,  
 erriko dirudunak.

JAUN.-Ondasunen onurak  
 eskintzen dakigunak.

KORRE.-Guazen ba Arbolan kerizpera.

LORE.-Deituko dabe zin egitera.

KORRE.-Ni naiz emen deituten dodana.

LORE.-Eta zeinek egin jaramona?

KORRE.-Lotsa sartuko dot edo emon.

LORE.-Zeinen lotsa sartu noiz eta non?

KORRE.-Ni nator Batzarrerako Nausi.

LORE.-Ametsetan ez bururik ausi.

Bizkaia'n, jakin eta ikasi,  
ez da orrelakorik ikusi.

KORRE.-Aurrerantzean ikas bearko  
zein ete naizen ta zetarako.

LORE.-Emen erria da nausi,  
besterik ez naasi,  
beste ezer ez ikasi,  
amets&& zorotan ez jausi.

(Danak joaten dira)

X

BIZKAI eta ALDUN. Geroago TOXU.

(Bizkai eta Aldun alkarregaz datoz)

BIZKAI.-Nundik zabiltz gure Aldun altsu?  
Korrexidorea dabil keixu.

ALDUN.- Ez bildurtu, Bizkai erri otsen,  
erria batu bear da lenen  
eta erria batu ondoren  
Ordezko orri deitu lenbailen.

BIZKAI.-Gure Jaun danari ezin uka  
gure agurra, lotsaren truka.

ALDUN.-Agertzea zer dan gure tratu  
Korrexidoreai ez eskutatu,  
baiña jakin dagiala aurrez  
zein dan bera gure eskubidez.

BIZKAI.-Erregeren aldetik ba diño,  
Bizkai'ko ez da Jaun arrunt baiño.

ALDUN.- Ortatik egingo dautsagu men,  
bestetik ez da zetan egiñen.

BIZKAI.-Dei egin Erriari ta batu,  
danok maitasun baten alkartu.

ALDUN.-Erregen gerrak onda gaitue,  
 seme ugari galdu ditue.

BIZKAI.-Gerrak ekarri dabe gosea.

ALDUN.-Goseagaz baita asarrea.

BIZKAI.-Benetan maite izanik bakea,  
 apurtu bearko da katea.

ALDUN.-Arrantzaleak atara gurako dabe nastea.

BIZKAI.-Inglesagaz asarre da Castillako erregea.

ALDUN.-Inglaterrak ba daki nun dan gure eskubidea,  
 ituna egin ta gurea bedi libertadea.

BIZKAI.-Jaunaren seme gara eta ez iñongo erregena.  
 Jaunafi bakarrik emona dogu gure almena.

ALDUN.-Guk eskatuten doguna izan bedi gure gisa,  
 ortarako daukagu Arbola santuan keriza.

BIZKAI.-Bizkaiak ez dauka iñogaz eta iñungo katerik  
 ez dogu euki sekula estuntzazko mesederik.

ALDUN.- Zer esango dautsagu ametsetan datorrenari?

BIZKAI.-Bete betean,lotsa zaintzeko gure legeari.  
 TOXU agertzen da.

BIZKAI.- Nun zabiltz Toxu txistulari?  
 Jo txistua,dei erriari.

ALDUN.- Asi deika Bizkai danari  
 ortako zaitugu deilari.

(Antzeztokiaren aldaketa igarten da,txistua entzuten dan  
 artean. ARITZA'ren azpia.

Albo guztietatik sartzen dira gizonak.Jezarlekoetan jar-  
 ten dira batzuk.Zutik besteak,ia geienak.

Egal baten,zutik,BIZKAI ezagutuko da.Bestean LORE (Gerni-  
 ka). Erdi inguruan Korrexidorea.)

## XI

DANAK,BATZARREAN.

ALDUN.- (Korrexidoreari)

Mesedez,nortasuna?

KORRE.- Errege duintasuna.

ALDUN.-Bizkaian zagoz, jakin?

KORRE.-Nun nabillan ba dakit.

ALDUN.-Mesedez, barrero, Zure agiria?

KORRE.-Itxuraz ez al nago erakutsia?

BATZUK.-Arro ba dator, uka!

BATZUK.-Makur ez ba da, uka!

KORRE.- Zer uka, zer uka?

Ez al dauka Erregeak Bizkaiko ala?

BATZUK.-Bizkai erria omendu dagiala!

Bizkai legea ezautu dagiala!

BIZKAI.-Gaztelako Errege, ~~Bizkaiko jaun da~~

Bizkai ontako Jaun da.

Ori gure oitura,

ori da gure lege.

Sekula ez errege.

Or dago gure fede.

KORRE.-Niretzat izena gitxiena.

ALDUN.-Zuretzat gitxiena leikena

guretzat eskubideik onena.

BIZKAI.-Zuretzat an, bekaldeko lurretan bai,

Guk, emen, Jaunei bakarrik dagiegu jai.

BATZUK.-Jaurerri da gure Bizkai.

BATZUK.-Jaun erri, izan eta nai.

ALDUN.-Ezagutzen ala dalakotzat?

KORRE.- Sinistu ezik ezagutzen latz.

ALDUN.-Ortan ba zatoz ezin baimendu.

BATZUK.-Ez baimendu. Ukatu! Ukatu!

BATZUK.-Ainbat ariñen erbesteratu!

ALDUN.- Gure erriak zer diñoan entzun?

Nik ezin nei bestela erantzun.

Igarten zer dan gure oitura?

KORRE.- Zuek onura, bestek lotura.

ALDUN.-Ori da izan be gure nortasuna,

Legea ta oiturak. Au da, Forua.

Ezagutzen, ba, gure bereiztasuna?



KORRE.-Indarrez eskintzen dot makurtasuna,  
ezagutuaz nire bakartasuna.

ALDUN.-Bearrez edo ez,onez edo txarrez,  
lenago bear ziñan apaltasunez,  
ta ez erria ipini irakiñez.

BATZUK.-Eutsi gogor Foruari.

BATZUK.-Eutsi tinko legeari.

ALDUN.-Men egin nai erriari?

Emen jezarko ba zara,ein jaramon berari.

KORRE.-Laster jakin eragingo dautsat "zuen Jaunari".

ALDUN.- Egizu,ba,zin,  
benez eta min,  
batzar aurrean,  
arbolapean,  
foruen zaintza,  
Bizkai'ren aintza,  
izango dozula zeregin.  
Egizu,ba,zin,  
benez eta min.

(Mai gaiñeko liburuan eskuak ipinita)

KORRE.- Miñez min,  
zin dagit.

ALDUN.-Orain zuek,erri ordezkariak.  
Zin egiten dozue,jaun argiak,  
iñoren mesede,  
norbaiten onura,  
norbaitzue<sup>en</sup> txede  
gaiztoen ardura,  
eta saldukeri-ge,  
Bizkai serbitsura  
etor zareela  
biotz eta fede?

ERRIAK.-Zin dagigu benetan,  
kontzientziko kezketan,  
errian izenean  
ta bere mesedean.

ALDUN.-Norbait zuzen ta onez ez ba dator  
ez da izango Bizkai seme jator.

BATZUK.-Lotsariz eriotzara dedilla.

BATZUK.-Urkamendian izan bedi illa.

ALDUN.- Batzarra oituraz asi daigun:

Gora Jainko, goietako Jaun andi.

Gora Bizkaiko Andre, Sortzez Garbi.

Gora Bizkai, gure inguru argi,

Gora Arbola Santu, Aritz lodi.

Azke gara ta azke jarraitzeko asmoz

Batzarra asi daigun bake gogoz.

DANAK.- Gora Jainkoa ta gora Euskalerra,  
ta gure Aritza goi goietan bedi.

OIALA

## BIGARREN EKITALDIA

Gernika'ko Batzar etxe ingurua.

Egal baten, laiñopean, Arbola.

Kartzelan ba legoke lez irudituko da, bere aurrean  
burdin-sare zabala daukala.

Alboan klaratar monjaen konbentua.

Oiala zabaltzean, burgin sarearen aurrean, gizon mardul  
eta andi bat agertzen da.

Lepoz dago, ixilik, eskuan atzean daukazala, euretan  
txapela daukala.

Otoitzean lez iraungo dau.

Klaratar monjaen abestia entzungo da barrutik.

## I.

## GIZONA ETA ABESTIA

Abestia:

(78 salmoa. Israel'go jazopenen irakatsiak.  
Asap'en poema.)

Entzun, nire erri orrek, nire irakaspena,  
makurtu belarria nire agoko berbetara:  
esakera zarrai egingo dautse nire egoak-eta  
antxiñako ezkutua agertu daitezaz.

Guk entzun eta ikasi genduana,  
gure gurasoak azaldu euskuena,  
ez dautsegu gordeko aren semeai,  
datorren gizaldiri azalduko dautsagu.

Semeai legea irakatsi egiela  
agindu eutsen gure gurasoai,  
urrengo gizaldiak jakin egian,  
baita gero jaio eitezaz semeak be.

(GIZONA tinko.

Abestia amaitu ta gerotxoago, txapela jantzi,  
alboan euki dauan atxurra lepoan artu ta  
erri alderantz eskutaten da.

Beste bidetik BIZKAI eta LORE agertzen dira.)

## II

## BIZKAI ETA LORE

BIZKAI.-Nundik ete dator durundi ori?

LORE .-Santa Klara monjetatik dirudi.

Monjak, egunero ordu onetan  
ekiten dautse Jaunai otoitzetan.

BIZKAI.-Bakoitzak berea.

Monjatxuok eurena,  
eta guk gurea.

LORE .- Danok dogu kurutzea.

BIZKAI.-Bakoitzak jaki zer dan berea.

LORE .-Ikusi? Ia goizero dator  
gizon au Aritzari omenkor.

BIZKAI.-Jakín bai nor dan bera?

LORE .-Edozein be minbera.

BIZKAI.-Monjaetako alabaen baten guraso?

LORE .-Leike, baiña Arbolak dautsa biotza eraso.

BIZKAI.-Ortako eleizan dauka tokia eroso.

LORE.- Leike, baiña orrek ementxe dauka bere gozo.

BIZKAI.-Maitemin zaarren baten gomutaz espero?

LORE .-Bizkaitarrak ez ei gara maite-mintsu.

BIZKAI.-Maite-miña ez da beti andre kutsu.

Edozetara be, bera ikusi ezkeru,  
samurtu egiten naz, zurbilduta gero.

LORE .-Bizkai izan eta samurtu?

BIZKAI.-Eta sarri malkotan urtu.

LORE .-Benetan gutzaz errukitu?

BIZKAI.-Lotsatu, mindu, minberatu...

Gutar batzuk egin dira makaldu  
ta beste akerrak gaitue saldu.

LORE .-Emen dago Arbola ezaugarri,  
gu izan giñanaren oroigarri.

BIZKAI.-Oroitzak, arnas barik, bizi larri.

Zegaitik gu onetara ekarri?

Kendu dauskuez foru eta abar,  
 ezaugarri berbera itxi igar.  
 Eta ez bakarrik orbel eta adar,  
 bai eta bere esto eta sustar.

LORE .-Zabalak dira euskaldun adarrak,  
 bakartadearen miñez okerrak.

BIZKAI.-Maitasuntsuak, nai eta landerrak.  
 Ni bakarrik <sup>ez</sup> ninduen zapaldu,  
 Euskalerra dana eben makaldu.

LORE .-Zailla da erri bateri eustea?

BIZKAI.-Azeriena da arrapatzea,  
 eiztariena nun dagon zaintzea.  
 Izan giñan gu eiztari,  
 laga geuntsan ardurari;  
 &menak gara loari,  
 lotsa galdu erriari...

LORE .-Ez zaite gogo txarretan zabartu.

BIZKAI.-Ezetz eta gertatua onartu?  
 Begira zelan gaituen urratu,  
 azkatasun gogo bera bastartu.

LORE .-Museo bat egin nai ete dabe gure legekin?

BIZKAI.-Nortasun bako umezurtz laga bestenaekin.

LORE .-~~Igarten da errian orren miña~~ (igarten da errian orren miña)  
 ta gudan sentidu bizi ezifña.

BIZKAI.-Ai ba letor bein gure eguna,  
 amets eta itxaropenduna.

LORE .-Eta zer egiteko?

BIZKAI.-Erria biztuteko.  
 Orduan gure lurra barriztuko dogu,  
 gure nortasuna kutsutuko dautsogu,  
 eguzki ta aizetan ipini Aritza,  
 bera dalako gure lege eta itza.

LORE .-Ta guk aize barriak arnastu  
 eta eragin onak asmatu,  
 zin egifiaz bere kerizpean  
 Euskalerraren mesedean... (Egal baten geratzen dira,  
 itzalpean, mutu.)

## III

LENGOAK (Itzalpean), APAR eta TXO.

(Bilbo'ra joaten danetan APAR arrantzalea, Gernika'tik igarotean, Arbola ikustera joaten oitua da, lotsa eta barruko minberaz. TXO semetxoa daroa beragaz.)

APAR .-Begira seme, or dago Aritza  
bakartadean,  
gure foruak or euken bizitza  
libertadean.

TXO .-Ta zuk, aita, ainbeste maite dozu Arbola?

APAR .-Bere alde emoteko aña nire odola.

TXO .-Euskaldunak makurtu dira ortara iñola?

APAR .-Euki zituen gudaketa larriak beiñola.

TXO .-Ez al da Aritzaren ezaugarri ezkerarra?

APAR .-Aritza ikurra da, egi ta ez guzurra.

Bilbo'ra joaten naizenetan  
pozik etorten naz ikusketan.  
Ikasi zuk be, seme, bidea;  
ementxe dogu guk izatea.

TXO .-Nik ez dakit ezer be legeetaz.

APAR .-Berez ikasten da eskubideetaz.

TXO .-Guk igarriko genduke orretaz?

APAR .-Zerionak emoten daben pozaz.

TXO .-Eta itxasora joan ba nedi?

APAR .-Ori da arrantzalien legedi.

Neurribako itxaso eta lurrak,  
arbasoen sakonak eta urak,  
norbaiten agintza dabe eurekin,  
berez ibili edo gizonekin.

TXO .-Luze ta zabal da itxasoa.

APAR .-Azkatasuna zabalagoa.

TXO .-Itxasoak ez dauka azkenik.

APAR.- Azkatasunak be ez etenik.

TXO .-Eta Arbola onen indarra?

APAR .-Er dauke gure legeak giarra.

TXO .-Lege ta lege zabiltz aita,  
zer da legea?

APAR .-Erri bateri begiraka,  
eskubidea.

TXO .-Eta ifoiz esandako foruak?

APAR .-Gure oitura ta usariuak.  
Gernika onetan gure aldunak  
ontzat artu ta zin egiñikuak.

TXO .-Gure legea emen ba dago,  
ni ere bearko naz makurtu,  
alako baten egongo naz-ta  
zure antzera gizon biurtu.

APAR .-Zarra ba doa igarfuten,  
barria geldiro dator,  
kartzelan ia itto eben,  
arnasik ezin ar jator.

TXO .-~~Ondixek~~ Oindixek diñotsut aita,  
nik ez dot nai kartzelarik,  
itxasoak ere kaitan  
ez dau sortzen bere gatzik.

APAR .-Erantzun ederra, seme,  
ekar lurretik orri bi.

TXO .-Zetarako?

APAR .-Biontzako.  
Bat sarfuko dot biotzean,  
bestea zuk erabili,  
ta goizefoko otoitzean  
musu bat eskin berari.

(TXO'k orri bi billatu, alkafrentzat  
banatu eta APAR eta bera eskutatzen  
dira)



## IV

## LORE eta BIZKAI

(Kaletik irudia aurreratu-ala deadar asarre  
eta eupadak gero ta zoliago entzungo dira)

LORE .-Negarra datorkit.

BIZKAI.-Niri ez dagokit.

Nai ta odolak irakin  
tinko bear dot nik, zutik.

ABOTS .-(Kalean) Kanpora! Kanpora!

LORE .-Zer dabil jendeak kanporaka?

BIZKAI.-Oi dan lez zibillei algaraka.

LORE .-Gaztek be ~~be~~ <sup>or</sup> dabiltz zarataka.

BIZKAI.-Bai, olerkari<sup>ari</sup> txaloka.

LORE .-Nor da olerkari ori?

BIZKAI.-Arlote eta kantari.

LORE .-Zegaitik erritarrak ain zoro?

BIZKAI.-Pozetan nago, entzunez gero.

Zapaldu nai dabenekin bero.

Kantuz diardulako gozoro,

erria esnatzen egunoro.

Ez da bertsolari,

bai erri poeta,

onek ondo daki

erriko illeta;

lege ta foruak

dan danak galduak,

ta ikusi Arbola

bakarrik dagola;

or dabil oiuka,

erriak ~~erriak~~ orruka

agertzen zotinka

zer ziñan Gernika.

(Erritarren abots eta asarreak jarraitzen  
dabe.)

LORE .-Nuntarra da bera?

BIZKAI.-Urretxu'ko semea,  
 Pró bintziko anaiea,  
 gure lege zalea,  
 euskaldun arlotea,  
 Foruen maitalea,  
 Gernikaren euslea.

LORE .-Erabiliko dau zerbaiten txera.

BIZKAI.-Erri maitasun utsa goitik bera.

ABOTS. -Kanpora zuek,beko kalera,  
 etor daitela barrura bera.

BIZKAI.-Etorten laga dagioela!

LORE .-Zegaitik eragotzi sarrera?

BIZKAI.-Lotan zagoz benetan Gernika?  
 Arrotzen jokoari segika?

LORE .-Nik diñodana,zegaitik nai galerazo?

BIZKAI.-Gure erria nai dabe lotan erazo.  
 Bera Arlote bat da,  
 kitarra ta guzti,  
 poeta euskalduna,  
 negar eta ezti.

LORE .-Zer da ortaz bere pekatua?

BIZKAI.-Gure Aritz oni kantatua.  
 Gertu dautsoe zibillak  
 kartzelarako bidea,  
 an eukiko ~~du~~ mutillak  
 luzarorako nekea.

LORE .-Orrelako kartzelak,  
 obenik ez daukenak,  
 ospea emongo dabe  
 eta onorez bete.

BIZKAI.-Beretzat ospe,  
 beste<sup>i</sup>~~ez~~ mesede,  
 guretzat obe  
 kalean libre.

## BIZKAI, LORE, IPARRAGIRRE ta ERRITARRAK.

(Zarata eta naste.

Erritarrak lortu dabe zibillei aurrea artu eta euren artean Iparragirre barrura ekartea.

Zibillak ez dira barrura sartzen.

Iparragirre, zuzen, Arbola aurrera dua. An mintsu, kez-  
kati, begiak malkoz bustita, belaunikatzen da eta une baten alaxe iraun.

Ixiltasun sakona erritarren artean.

Geroago, zutik:)

BATEK. (Agindu emoten lez)

Ez& itxi zibillei barrura etortzen!

Erakutsi daiegun lotsa gordeten!

BESTEK.-Kanpoan geldi mesedez,  
geiago ez <sup>miñik</sup> ~~beste~~ iraiñez

BATEK.- Ez ausartu lur sakratura sartzen,  
Ikasi erriari lotsa artzen.

BESTEK.-Nasai, baretu gizonak,  
laga arnasa berari,  
gurekin daukagu emen  
Euskalerrian kantari.

(Ixiltasuna unetxo baten)

IPARRAGIRRE.

(Arretaz gertu eta kantari)

Gernikako Arbola  
da bedeinkatua,  
euskaldunen artean  
gustiz maitatua.

Eman da zabal zazu  
munduan frutua,  
adoratzen zaitugu  
Arbola santua!

bis

BATZUK.-Beste bat! Beste bat!

BESTEK.-Giegao! Geiago!

## IPARRAGIRRE.-

Etzera eroriko  
 Arbola maitea,  
 baldin portatzen ba da  
 Bizkaiko jendea.  
 Laurok artuko degu  
 zuretzat partea,  
 pakean bizi dedin  
 euskaldun jendea.

## ERRIAK.-Eman da zabalatzazu

munduan frutua,  
 adoratzen zaitugu  
 Arbola santua!

(Geldiro antzeztokia illunduten dua,aldaketa egiteko,  
 erritarrak Iparragirre lepoan artu eta kanpora daroen  
 artean. Eta barriro,eguna egitean....)

## VI

## OLERKARI eta EMAKUMEAK.- LINE eta LUKE.

(OLERKARI dago aurrez aurre. Egalean,euren txanda asi  
 arte,argi makal edo kerizpean,Emakume jokolariak.  
 Euren atzean,LINE eta LUKE.)

## OLERKARI:

Eta Gernika'ren gaua luzatu egin zan.  
 Bizkaiko Jaunak atzerritar geratu ziran.  
 Arbola,laiñopean,euzki barik,makaldu.  
 Genduzan legeak emengo giarra galdu.  
 Baiña urteak ba dauke Udabarri aro,  
 aizeak garbitzen asi ziran goiko laiño,  
 Goruleak briskan gogotsu iñarduela,  
 pelotarik bola aidean erbillela...

Gure Arbola igarri zan indar barritzen,  
bere adarrak orri orlegiz txukunduten,  
ainbat inguru bere kerizpez girotuten,  
gasteak asi ziran bertara urreratzen...

(Eskutaten da).

EMAKUME JOKOLARIEN alderdiak argia artzen dau.)

BATEK.-Gogoratzen?

Gazteago giñanean  
goruetan ekiñean.  
Orain ez dago liñurik,  
ez eta be garramañik,  
ezautu be ez gabikorik.

(Lau emakume jokoan. A.B.D.eta E'gaz bereiztuko diranak.)

A.-Briskarik ba dozu?

B.-Txikia ipiñi.

D.-Kiñurik artu ez?

E.-Zalduntxoa jarri.

A.-Irukoa nik.

B.-Ta nik txankea.

B.-Or erregea.

E.-Or <sup>nik</sup> ~~nik~~ legea.

LIÑE.-Erregez beteta

nor~~e~~ ete zara zu?

LUKE.-Madril'go kortea

jakin nai ba dozu.

A.-Ixil kanpotik.

D.-Kontuz kiñukin.

B.-Etzaitetz asi

guzur eta naasi.

A.-Orra barriz txankea.

B.-Bizkai Jaun semea.

A.-Ortatik datorkit

jokoa galtzea.

B.-Begira nortzuk datozen.

D.-Jo! Talo ta esnea!

A.-Artuko neuke benetan  
katillu bat betea.

KINE.-Talo ta esnea esan?

Txeru ta Toba dira.

Gizenegi dator Toba.

Antzeko idizkoa.

Jokoan.

A.-Or da batekoa.

B.-Onek bai joko.

D.-Ene Jaungoikoa,  
bota dot laukoa.

A.-Iru zalakoan?

B.-Gordeizu kolkoan.

D.-Ixilik jokoan.

E.-Gurea oingoan.

B.- Ni neuk daukat briska.

E.-Atara bein, neska.

A.-Ez dakizu aiskide  
falga dala errege?

## VII

LENGOAK (Basterrean) eta TXERU ta TOBA.

(Burdin saretik begira)

TOBA .-Txeru, zegaitik au ikusteko ainbeste gar?

TXERU.-Aita zanak il aurretik aginduta neukan:

Euki seme fedea Gernikako Arbolan.

Ango legeak dakarkez gure bake ta lan.

TOBA. -Ta Arbola ustelduko da. Ala dirudi.

TXERU.-Ez.

TOBA .-Gurea igartuz joaku, gaixo irudi.

TXERU.-Ez!

TOBA .-Legekoea ez uka giroari.

TXERU.-Ezetz!

TOBA.- Ez zaitez ain zital.Ez ain setatsu.

TXERU.-Nor?Ni ala zu?

TOBA. -Biok bardintsu.

TXERU.-Ixildu zadiz.

TOBA .-Beti lez zabiltz.

TXERU.-Gure aitak zin egin ei eban emen,

Arratiko izanez,danon onorez,

foruak zainduten ipintea kemen,

bere seme ta ondorenen odolez.

TOBA .-Beste askok san Antoniori promes,

urteetan ibiltearren erromes,

ta andrea koipez igortzi egunez,

illuntzetan tabernetan ibili ordez.

TXERU.-Beti lez zabiltz maitemin ta samurka?

Ba kalean enaz asiko musuka.

TOBA .-Etxean be naiko zaitut musu merke,

naiago zintzotasuna musu truke.

TXERU.-Lengora Toba.

Inguru onek urrunera garoaz.

TOBA .-Obe bizitzan aurrerantza ba goaz.

Gure izatea indartuta lengoaz.

TXERU.-Orreri amen esan daigun fedeaz,

kezkatu gaitezen semien geroaz.

Toba!

TOBA .-Zer?

TXERU.-Gure mendietan gudariak dabiltz.

TOBA .-Gixajoak tatarrez,jausi ta il.

Etxetan ba da amaika negar ixil.

Euskal izatea benetan da zurbil.

TXERU.-Gaur,ordez,danok euskotar.

TOBA .- Euskerea ia galdu gendun.

Aritzan berdeak zenbat iraun?

TXERU.- Guztiok jokatu bear orain.

Toba laztan.

TOBA .-Maite,esan.

TXERU.-Gure aitita zaarraren kideko  
izango ete da zure sabeleko?

TOBA.- Ai Txeru, zer datorken erregu gora,  
Arbola biziko da au gorabera.

TXERU.-Baikoa nik...ondo dakizu, semea nai.

TOBA .-Seme nai alaba eukiko dogu jai.

TXERU.-Zer da urrunetik datorkigun kanta?

TOBA .-Ustez, monjaen otoi ta gorantza.

MONJAK (Barrutik)

(TOBA eta TXERU) abestiari adi geratzen dira. Baikoa be-  
reala, abestiaren gainetik, Olerkari'ren abotsa igarri-  
ko da, Job'en irakurgaietako zatia azkatzten.)

OLERKARI. (Barrutik)

Indarkeria egiten dot deadar,  
eta ez daust inok be erantzuten;  
laguntza eskatu  
eta ez dau inok nire alde egiten;  
bidea itxi egin daust,  
eta ez dot urteerarik;  
nire bide zidorra illunpez bete dau;  
erantzi egin daust dedua,  
eta koroea nire burutik kendu egin dau.  
Alde guztietatik ondatu nau,  
eta alde egin bear dat;  
erfotik atara dau, zugatza lez, nire itxaropena.  
Aren taldeak parrastaka etorri dira...

TXERU.-Biotzean ba darabilt zerbait  
eta esaten ausartu ezin.

TOBA .-Egingo zendun pekatuen bat,  
beti zabiltz orrelakoekin.

TXERU.-Pekatu ez, leikena bederen,  
ta bete ezik izan lei oben.

TOBA .-Eskutukoen bat ager nairik  
onera ekar nazu samurtzen?

TXERU.-Biotza<sup>1</sup>arnas emon gurarik  
ekar zaitudala dot autortzen.



TOBA .-Txeru!

TXERU.-Toba! (Laztanduten dira)

Entzun dozu?

Guztiak dabiltz dei larrika.

Olerkaria be otoika.

TOBA.- Norako deika, norako?

TXERU.-Errian laguntzarako.

Gure erria estu dago

eta ni bere kezka nago.

TOBA.- Gudariak ez al dabe aldeztuko mendian?

TXERU.-Areik bezin gazte ta ni emen nago errian.

TOBA .-Baiña zuk etxea dozu<sup>e</sup> ta andrea.

TXERU.-Gure antzera areik be euren etxea.

Zu bezin etxeko-andre arein emaztea.

TOBA .-Eta datorren umea...

TXERU.-Jaunari bekio ondo etortea.

TOBA .-Areitako askok ba dauke semea.

TXERU...bildurretan lagaten nazu.

TXERU.-Zure onez jokatzeko naukazu.

TOBA .-Beti izan zara orrelakoxe.

TXERU.-Ba zenkien ezkondu ordukoxe.

TOBA .-Baiña orain ez gara gu bakarrik.

TXERU.-Zuk ez egizu astu senarrik.

Otoi ez dedin gerta okerrik.

Ez uka datorrenai ongarrik.

Dana bear dau gure Aberrik.

TOBA.- Ene ba! Ba dakizu zer zabiltzan eskatzen?

TXERU.-Egin neikenik ezin jardun eztabaidatzen.

TOBA .-Eskubiderik ez al daukot onetan ukatzen?

TXERU.-Ba dakit miñez be ez nazula atzeratzen.

TOBA .-Ene ba! Ta noiz juateko?

TXERU.-Ez dago ordurik artzeko.

TOBA .-Gaur ez dozu pentsatuko.

TXERU.-Ez nazu gaur baimenduko?

TOBA .-Txeru, zer diñostazun ba dakizu?

TXERU.-Min miñez diñotzudala jakizu.

Adorez artu, emazte maite,  
bildur barik etxeratu zaite.

(Alkarri laztanduta geratzen dira)

(Egazkifien zaratak entzuten dira. Turrinak. Urduritasuna. Kezka)

TXERU.-Arrano baltzak datoz.

TOBA .-Emen ondo al gagoz?

TXERU.-Begira or goian...bat, bi, iru...zazpi...

TOBA .-Billa daigun arin zerbaiten azpi.

TXERU.-Geiago datoz urrunean.

TOBA .-Igarten da zunburrunean.

TXERU.-Itxas aldetik datozala dirudi.

TOBA .-Etzan zaite lurrean, arri irudi.

TXERU.-Ausartuko ete dira Gernika zigortzen?

TOBA .-Jarrai naiko dabe gure erria gogortzen.

TXERU.-Eta gu esku utsik!

Gure Jainkoa! Ba al dago onetarako eskubiderik?

TOBA .-Makurtu laztan, makur lurrera.

Ikus lerkariak goitik bera!

TXERU.-Eutsi, eutsi lapak lez lurrari.

TOBA .-Otoi, otoi gure Jainkoari.

TXERU.-Ba dirudi sua jaurtiten dabela.

TOBA .-Gernika erre naiko dabe orrela.

(Inguruan egozan emakumien garraxi ta intziriak entzuten dira. Illuntasunean igarriko dira batzuk egorri, besteak tatarrez lurrera jausten, edo izututa ibiltzen.)

TOBA. -Otoi daigun, otoi gure Jainkoari.

TXERU.-Zer gertatuko ete gure erriari?

TOBA .-Meñedeik ez dautso onek datorrenari.

TXERU.-Gogorra da au! Eutsi, eutsi Toba.

TOBA .-Txeru, biok alkarri lotuta <sup>ola</sup>aba .

(Emakume bat, kirioz beteta, jagi ta joaten asten da)

TXERU.-Nora zuaz andre zoro-zoro, nora?

ANDREA.-Ama zarra etxetik kaleratzera.

TXERU.- (Jagi ta emakueari eusten) Ezin ziñei joan andre iñora.

Geldi emen && eta makur lurrera!

## VIII

## LENGOAK.

( Turutak geldi barik;egazkiñak, erria inguratzen;  
lerkarien dunbadak,kañoiien tiroketak,su-gailluen  
dizdirak...

Zoro antzerako negar luzeak,uluak,deadar larriak,  
intziri urduriak,garraxiak,birao zakarrak,otoi  
errukitsuak...

Bildurra,zarata,hegarra ta zoritxarra igarten dira,  
inguru guztian.

Barealdia eginda be ez dira ausartuten,lurrean makur  
dagozanak,euren buruak jaso ta iflora aldatzen.

Zoro antzera ezagutuko dira,ikarak mendetuta,zer  
egin ez dakiela,kezka eta bildurti.)

LIÑE.-Ai ene! Ezin eutsi.Zein joan bera?

LUKE.-Erre atsa besteik ez dator onera.

LIÑE.-Ene! Ene gureak!

LUKE.-Erruki barik jaurti dituez nai zituenak.

LIÑE.-Gerra madarikatua!

LUKE.-Au ez da gerra. Inpernua,benetako inpernua!

Zer egin dogu guk,zer?

Zer egin onetarako?

Inpernuko sua baketan gagozanentzat!

Nua dago Jauna zurea gaizkilleentzat?

(Burrumbada ikaragarria)

Zer izan da ori? Zer izan da ori?

Lurra irakiten ipin dabe gori.

LIÑE.- (Luke'ri eutsi eta intzirika,aldebanatu ezinda:)

Gernika guztia agiri il zori!

(Igeska doaz.Txeru'k geldi arazitako emakumea be zoro  
antzera eurekin doa)

TOBA .-Ai ene,Txeru, munduaren azkena da au.

TXERU.-Ziur egon,Jaunak ~~beste~~ al bestean aiertuko dau.

TOBA .-Fede onegiko zara.

TXERU.-Euskaldunok alaxe gara.

TOBA .-Ezin nei.Dardaraka,otz nago.

TXERU.-Berotuko gara geroago.

TOBA .-Goitik berako arradak daukadaz.

TXERU.-Ni neu nago ezin eutsiz taupadaz.

TOBA. -Otz nago.Ez dakit zer daukaten.

TXERU.-Amaituko da alako baten.

TOBA .-Olakorik iñun ez da gertattzen.

TXERU.-Erri guztia nai daben lez ondutzen.

(Adi geratzen dira,gero ta bildurrtiago).

TXERU.-Otoi daigun,bildurraren otoi.

TOBA .-Eriotza datorkigu danoi.

TXERU.-Lagundu bearrean makaltzen nazu.

TOBA .-Nun egon be ez dakidala naukazu.

Sinistu,min daukat,etenbako min.

TXERU.-Au ikusita zein ez da negarmin?

TOBA .-Ez nabil origaitik.

TXERU.-Esan ba zegaitik.

TOBA .-Gurea...ikaratu egin dala egingo neuke.

TXERU.-Gurea...

Zer gurea? Zeiñena?

TOBA .-Pentsatu zeinkena.

TXERU.-Zaindu.Kontuz.Egon ernai.

TOBA .-~~Ernai~~ Ernai nago,baña ez nasai.

Benetan. Ikaratu egin dala egingo neuke.

TXERU.-Au oartu ezik bizirik ez genduke.

TOBA .-¡Gero ta estuago)

Txeru,nire Txeru...Larri dago.

Laster galdu neikela ta nago.

TXERU. -Benetan?

TOBA .- Itxuretan...

TXERU.- (Zital) Ama bako seme madarikatuak!

TOBA .-Gureak orain kontu ta arazuak.

TXERU.-Aterpe bat billatu bear.

TOBA .-Ez al dakizu emendik zear?

TXERU.-Erantzun ete leike orain iñun?

TOBA .-Ori difot,deituta be nun sartu,nun?

(Negarrez)

Kezkati nago.Laster datorke.

TXERU.- Baretu zaite.Eutsi ta adore.

Jaingo altsua! Lagun,illen orde.

TOBA .- Arin.Ez egon lo.

TXERU.- Lo? Nun atea jo?

TOBA .- Ondatu dabe gure Euskalerria.

Alegin daigun Txeru.

~~Etsi~~ Ibil gaitezen keixu.

Gurea bizi lei.Or dago larria.

TXERU.- Guazen nunbaitera.

Al doguna egin daigun.

Guazen eskuturen batera...

Zegaitik ez Batzar etxera?

Gure legeak ezin galazo

seme barri bat bertan sortzea<sup>sa</sup>.

(Nekez,erdi tatarrez,baztertuten dira Batzar etxerantz)

## IX

### ALDUN ETA BIZKAI.

ALDUN.- (Kezkatuta eta arrituta dator.Sartu ta Arbola ondoko burdin sarera urreratzen da. Era berean BIZKAI.

(Kiriotsu,zoratuta lez)

Bizirik zagoz,bizirik?

Zutunik zagoz,bai,zutik?

Erri guztia suzitu,

odoluztu ta zatitu,

kizkaldu,

errekaldu...

Uluka dabiltz bizi diran banakak,

zauriz edo erreta dagoz dan danak...

arri-artetan zapal,

suen garretan kizkal...

gorpu osorik daukenak

buru galduta geienak.

Il ez diranak

Erio'ri deika

erretakoak

Arimei arrenka...

Nun eta zetan geratu zara Gernika?

Nun daukazu eriotzaren pertika?

BIZKAI.- Zer egin dau, Jauna, Bizkai erri onek,  
zer egin dau Euskalerrri bedeinkatuak,  
inpernutako su ikaragarriak  
guretarren aurka batuteko emen?  
Ondamendi onentzat zigorra, arren!

ALDUN.- Eta zu, Arbola, zu bizi zara!  
Eta zu Aritza, ez zara erre!  
Ziñaldari guzurti izatekotan  
laga ete zaitue ikutuke?  
Edo egunen baten gure Batzarrak  
munduari ager dagion asarre:  
Azkatasuna maite daben erri ta gizonak  
zetan urkatu bear ditue indar lerkadak?

BIZKAI.- Jainko! Zegaitik zure erri osoa martiri?  
Noiztik da ainbesteko pekatari Euskalerrri?  
Edo ta gu euskaldunok aukeratu gaituzu  
indarkeri nabarmenen lekuko ta testigu?

OIALA.

IRUGARREN EKITALDIA

Gure egunetan.

Arbola' ren aurreko zelaian.

Arbola, lenengotan, atzean agertuko da, ikusleen aurrez aurre burdin sarea aurrerago duala, bere kanpoztan jandea erraz ibilteko eran.

Geroago, dantza ondoren, burdin sarea kendu egiten da, eta erabilimleiken antzeztokietan, Arbola erdira ekarri, edo urreratu eragingo da.

Ezin leiken tokietan, al bestean.

Jantzi, tresna, apaingarri eta abar gure girokoak.

## I

OLERKARI bakarrik.

OLERKARI. (Irudi zuri).

Arbola onen kerizapean  
 artu ninduen kartzelarako,  
 suaren ke eta gorrototan  
 eroan be bai eriotzako.  
 Nire odola eskiñi neban  
 nire bizia opaldu bertan.  
 Baiña gogoia ementxe dago  
 askon naiak baiño zabalago.  
 Gogoak ez dau oiñik lurrean,  
 poeten sena dabil aidean,  
 Aritz miña dabillen antzean  
 kimu barrien eskabidean...

Istori zar da gure Arbola,  
 barri izango zara beñola;  
 ezin aaztu berau iñola,  
 emon geuntsunez gure odola.

Munduan erri txiki da Bizkai,  
 baiña ateak zabalik nun-nai;  
 legeetan edonon dauka gai,  
 barruan bakarrik ainbat etsai.

Alaz-ta Udabarria dator,  
 ingurua alaitzen emonkor,  
 laga euskaldunak zuen lotsor  
 ta aizetara esnatu jator.

Etor,urreratu nire erri,  
 zabal Arbolari aize irri,  
 emon Arbolari indar barri,  
 sartu berari kimu ongarri. (Eskutaten da)



## II

## OLAGIZON-BASERRITARRAK. PERU eta BASO.

(Sartuaz batera, bai oneik eta geroago datozenak,  
burdin-sare aurrean geratzen dira Arbola'ri omen  
egiten.

OLAGIZON-BASERRITARRAK malluak eta laiak esku bien  
erdian buru-gaifietan eutsita.)

OLA-B.- (Sartzen)

Malluka jo,  
jo malluka eusko burdiña;  
gori laga,  
laga gori erriaren miña.

PERU .- Gernika onetan sortua da  
euskal legien iungura,  
Aritzan ondoari lotzeko  
burnitu daigun aingura.

OLA-B.- Malluka jo,  
jo malluka eusko burdiña;  
gori laga,  
laga gori erriaren miña.

~~Laiaketa~~  
Laiaketa<sup>gure</sup>  
landu lurra izerditan

Betor frutu,  
lur emaitza, erri mesedean.

BASO. - Aritzaren keriza nai dogu,  
bero dago-ta baserrietan,  
baserririk ez dogu nai galdu,  
betoz legeak gure laguntzan.

OLA-B.- Laiaketa  
landu lurra gure izerditan,  
Betor frutu,  
lur emaitza, erri mesedean.

PERU .- Baso, belardi eta zugadi  
 izan dira baserriko bizi;  
 Arbolape ontako legedi  
 gizon-eskubideen nagusi.

OLA-B.- Malluka jo,  
 jo malluka eusko burdina;  
 gori laga,  
 laga gori erriaren mifia.

(Burdin sarearen aurrean gelditzen dira, ikusleen  
 aurrez aurre.)

### III

LENGOAK ETA ARRANTZALEAK (APAR eta BITS)

ARRANT.- (Sartuaz, "Txalupa bat, txalupa bi" ren doiñuz)

Txalupa bat  
 txalupa bi nun-nai itxasoetan,  
 erramutan  
 beti ari bits eta aparretan.

APAR.- Arrantzale lez gara itxastarrak,  
 itxas garra darabildu soifian,  
 itxas bizitza gure izatean,  
 Arbolaren lotsa maitasunean.

ARRANT.-Txalupa bat,  
 txalupa bi nun-nai itxasoetan,  
 arraiñik ba da  
 etorriko da euskal txalupetan.

BITS. - Zabal ziran itxasoak guretzat,  
 euskoak ezautu zituen libre,  
 arraiña dan lez nun-naiko urentzat  
 ala nai doguz itxasoak gure.

ARRANT.- Txalupa bat,  
 txalupa bi, nun-nai itxasoetan;  
 arraiñik ba da  
 etorriko da euskal txalupetan.

BITS eta  
 APAR. - Abasio, lebatz eta makallau  
 guk billa genduzan kalarik kala,  
 orretan jardun giñan egun ta gau,  
 mundua arrituta genduala.

ERRANTZ.- Txalupa bat,  
 txalupa bi, nun-nai itxasoetan;  
 arraiñik ba da  
 etorriko da euskal txalupetan.

(Sare alboan geratzen  
 dira.)

#### IV

#### LENGOAK eta PELOTARIAK (AURRE ta ATZE.)

PELOT. (Zeztuak aidean dakarrezala)

Aurrean zu,  
 atzean ni gure plazaetan,  
 orma biak  
 biziki jo mundu zabaletan.

AURRE. - Munduz mundu darabilgu pelota,  
 danean ezautzen dabe Arbola,  
 bardin da Europa nai Amerika,  
 danetan goratzen dabe Gernika.

PELOT.- Aurrean zu,  
 atzean ni, gure plazaetan,  
 orma biak  
 biziki jo mundu zabaletan.

ATZE .- Mundu guztian zabal da "euskal jai",  
 lotsa dautse pelotari nun-nai,  
 pelota lez da euskal izatea,  
 bizi,jator,arin eta librea.

PELOT.- Aurrean zu,  
 atzean ni,gure plazaetan,  
 orma biak  
 biziki jo mundu zabaletan.

ATZE ta AURRE.

Jokoak ez gaitu sekula saldu,  
 ortaz ez dogu duintasunik galdu,  
 erri lez bardin nai dogu <sup>jokatu</sup> ~~jokatu~~  
 ez dogu nai Arbolarik lotsatu.

PELOT.- Aurrean zu,  
 atzean ni,gure plazaetan,  
 orma biak  
 biziki jo mundu zabaletan. (Alboratzen dira)

#### IV

LENGOAK eta GUDARIAK.

(Arro datoz kantari)

Emen gatoz gudariak  
 Arbola aurrera,  
 gure odol ta biziak  
 bertan eskintzera.  
 Euskaldunen legeak  
 eratu bediz emen,  
 azkatasun oso ta  
 erriaren meseden:

Emen gatoz gudariak  
 Arbolan aurrera,  
 gure odol ta biziak  
 bertan eskintzera.

Batu gaitz euskaldunok  
 Arbola aurrean  
 libre bizi nai dogunok  
 erri ta erbestean.  
 Euskaldunen legeak  
 libre sortu ginduzen,  
 zaindu daiguzan eurak  
 libre izan gaitzen.

Emen gatoz gudariak  
 Arbola aurrera,  
 gure odol ta biziak  
 bertan eskintzera.

(Bestien antzera egalean gelditzen  
 dira)

## V

LENGOAK eta DANTZARIAK.

(Txistuaren doiñua entzungo da ta bereala Dantzariak giartsu sartu dantza bizian.

Danak sartu eta bereala, unerik galdu barik, OMENALDI DANTZA egingo dabe Arbolaren aurrean.

Dantza amaitu eta Arbola aurreko burdin sarea zabaltzen igarriko da, eta oztopo ori galdu egingo da.

Al dan tokietan Arbola, geldi-geldi, lenengo planoan geratuko da. Antzeztokian egozanak bere atzean geldituz.

## VI

LENGOAK, LORE eta BIZKAI. Geroago ALDUN.

(Lengoak, au da, Olagizon, Arrantzale, Pelotari, Dantzari eta abar Arbola inguratzen geratuko dira, ikuspegi eder bat egiteko eran.

(Brain datozanak, Arbolaren albo banatan, Irudia zuzentzen.)

## BIZKAI (Sartuaz)

Ni naiz Bizkaia,  
alaba zu Gernika,  
ni pago makatza  
zu legeen Aritza.

DANAK.-Gurea da, gurea Arbola,  
gorde Aritzan ezkurra,  
ez galdu iñoiz eta iñola  
gure erriko ikurra.

## LORE (Sartuaz)

Ni naiz Gernika,  
zu nire erri,  
Bizkai birika,  
eusko aberri.

DANAK..-Gurea da, gurea Arbola,  
gorde Aritzan ezkurra,  
ez galdu iñoiz eta iñola  
gure erriko ikurra.

## ALDUN.- (Sartuaz)

Nire erria aldeztuten nator,  
nire erria aldeztuten nator...

DANAK.- Lerdenduko da gure Aritza,  
ugarituko da bere keriza...

ALDUN.- Bizkai erria aldeztuko dot,  
Euskal erria osotuko dot,  
bake edo irrintziz,  
odolez edo biziz.  
Ta Gernikan sortu eraziko  
Aritz azpian oiñarrituko  
azkatasunaren poz eta on,  
Euskalerrin betiko zorion.

BIZKAI.- Itxartu, itxartu Euskalerrri,  
txapela kendu, men Arbolari.

LORE - Kiskaldu ta erretako Gernika  
biki da zutik irrintzika,  
azkatasunan Jaunari otoika,  
lege egilleei zirika,  
oitura jagoleei dei larrika,  
eman da zabalzazu deika.

ALDUN.- Batu gaitzen euskaldun danok,  
anaitasunean bizi orok,  
Aritzan lotsa, Ipar ta Ego  
gure biotz-gogoetan bego.

DANAK.- Itxartu, itxartu Bizkai erri!  
legeei eutsi, gora Euskalerrri!

(Danak goraka diarduen artean, Oiala. )

AMAIA